

Aretxagazeta

Aretxabaleta • 2000ko martxoaren 9a • 186. zka.



Sekulako aratuste domeka

Iturririk iturri: Ibon Antero • Iritzia: Antonio Astigarraga • Kiroiak: Candido Perez

A R E T X A B A L E T A O K I N D E G I A
Loramendi, 6 ☎ 943 77 17 19 • Mitarte, z/g ☎ 943 77 00 81

Karapaixoa opari goxo-goxoa



Oraindik besoetakoari karapaixoa oparitzeko zaudela?

Zatoz Aretxabaleta Okindegira!

Karapaixo goxo-goxoak ditugu!

Kanpo zorra zer den badakizu? Martxoaren 12an egingo den herri kontsultarekin zeozer lortuko da?



Elena Arenaza

Bai. Herri kontsulta horrekin gobernua mugitzea lortu daitekeela uste dut. Azken finean herriaren ordezkioak dira, ez? Gainera, herri pobreak garatzea denon ardura da.




Prudentzi Iregi

Bai. Kanpo zorra barkatu egin beharko litzateke. Ez dakit zeozer lortuko den, gabiltzan moduan ibilita... Nik, behintzat, hori defendituko dut.



Aitor Gabilondo

Bai. Kanpo zorra kentzearen aldekoa naiz. Nire ustez, domekako herri kontsulta, batez ere, testimoniala izango da. Zaila izango da zeozer lortzea.



Luis Guridi

Bai, jakina. Zor hori duten herrialdeei barkatzearen aldekoa naiz. Domekako kontsulta horrekin zeozer lor daiteke baina eskatzen den dena ez.

ESKUTITZA



Otsailaren 22an, Gasteizen bi bizitza galarazi zituen atentatuaren aurrean, zera adierazi nahi dugu:

1- Atsekabe ezin haundiago hartu ditugu Fernando Buesa eta Jorge Diezen heriotzak.

2- Hildakoen senitarteko, lagun eta kideek bizi duten saminarekin bat egiten dugu.

3- Era honetako ekin-tzek, bizi dugun gatazka politikoa areagotzen duten heinean, azken hilabetean emandako aurrerapausuei ez diote inongo mesederik egiten.

4- Gure herriak eskatzen duen bake eta demokrazia egoerara iristeko, inoiz baino beharrezkoago deritzogu, enfrontamendu eskemak gainditu, eta elkarriketa bideak garatzeari. Hori dela eta, dei egiten diegu gobernuei, ETari eta baita agente politiko zein

sozial guztiei, elkarriketa guneak sendotzeko helburuz, ahalegin guztiak egin ditzaten, guk ere, horretarako konpromiso irmoa hartzen dugularik.

*Aretxabaletako Udal
Gobernu Batzardea*



NAGUSIEN DANTZA TALDEA

Loramendi dantza taldetik herritarrongana zuzentzen gara, aspalditik buruan darabilgun ideia bat martxan jartzeko asmoz.

Aretxabaletan gaztetxo-en dantza taldea egonik, polita ikusten dugu nagusien dantza taldea sortzea.

Lasai egon zaitezke sekula dantzan ibili ez bazarete, gogoia eta ilusioa izanez gero, euskal dantzak ikasteko oztoporik ez baitago. Beraz, gure aldetik animoak bidaltzen ditugu,

eta bereziki, beti horren gutxi izaten diren mutilen animatzeko eskatzen diegu.

Hortaz, nagusien dantza taldeko partaide izan nahi duzuenok, Loramendi Euskara Elkartean izena eman dezakezue, martxoaren 13tik apirilaren 21ra bitartean.

Guztion artean Aretxabaletako nagusien dantza taldea osa dezakegu, eta bide batez, talde hau gaztetxo-en erreferente izan daiteke.

Beraz, zuen berri izango dugulakoan, hurrengo arte.

Loramendi dantza taldea

Aretxagazeta

186. zenbakia
2000ko martxoaren 9a.

Durana 11, 151 postakutxatila
Aretxabaleta
Tfnoa: 943 79 86 21
Faxa: 943 77 18 54
e-mail: aretxagazeta@saretxo.es.
Internet: www.saretxo.es/aretxagazeta
Argitaratzailea: Aretxabaletako komunikabideak-Loramendi elkarte.

Erredakzio-kontseilua:
Gurutze Larrinaga, Koldo Zubizarreta, Aitor Irure, Gotzone Arrese, Gorka Etxabe, Begoña Arenaza, Arrate Arkauz, Aintzane Lasa, Pello Zubizarreta, Arantza Antxia.

Erredakzio arduraduna eta publizitate arduraduna:
Mirari Altube eta Iratxe Bengoa.

Kolaboratzaileak:
Mikel Arrolabe, M. J. Aretxaga, Andoni Arana, Joseba Lopez de Armentia, Inma Miguel, Amaia Berezibar, Aitor Antxia, Felis Beltran de Heredia, Loramendi E. E., Udala.

Banatzailea:
Aitor Urrutia.
Inprimategia:
Eguzkigraf, Koop. Elk.



Tirada: 2.500 ale.
Aretxagazeta paper ekologikoan egiten da.
Lege gordailua: S5378 / 94.
ISSN: 1134-2609.

Aretxagazeta aldizkaria ez da kargu egiten aldizkarian adierazitako esanekin eta iritziekin.

Erakunde hauen laguntza



Aretxabaletako Udala



Gipuzkoako Foru
Aldundia



Eusko Jaurlaritzako
Kultura saila



■ **JAI BATZORDEA ZABALIK DAGO** Kultura batzordeak herriko hainbat gazteri, ehunen bati, Jai Batzordean parte hartzeko deialdia egin zien, baita hogei bat lagun agertu ere. Andramaixak eta San Migelak prestatzen hasi beharrean daudenez, bigarren eskutitz bat ere bidali dute kulturakoek. Ideia berriak dituen jendea erakartzea Jai Batzordera da asmoa.

Batzorde hau, astero biltzen da, asteazkenero hain zuzen, arratsaldeko 8etan udaletxeko ganbaran. Eskutitza jaso edo ez, herri-tar guztiei zabalik dago, beraz, jaiak prestatu nahi dituenak badaki nora jo behar duen.

Goienkaria aldizkariaren ale berezia kaleratuko da astelehenean


Eskualdeko komunikabideak, telebistak eta aldizkariak, batuko dituen Goiena Elkartek, Goienkaria aldizkariaren lehenengo alea kaleratuko du datorren martxoaren 13an. Ale berezia izango da, hauteskunde inguruko berriak bakarrik emango baititu. Deba Goiena osoko datuak jasoko ditu herriz herri eta aurreko hauteskundeetako emaitzen arteko konparaketak ere egingo dira. Ale berezi honetan emaitzak, anekdotak, grafikak... aurkituko ditugu.

20.000 ale inguru banatuko dira eskualdeko bederatzi herrietan Elgeta, Antzuola, Bergara, Oñati,

Arrasate, Aramaio, Aretxabaleta, Eskoriatza eta Gatzagan. Doan eskuratu ahal izango da astelehen goizean okindegi, kiosko eta hainbat tabernetan, lantegi batzuetara ere eramango da. San Prudentzian kotxe iladan itxoitea tokatzen zaien gidarien artean ere banatuko da.

Goienkariaren lehenengo urratsa

Eskualdeko bederatzi herrien arteko elkarlanean egingo den lehenengo produktua izango da ale berezi hau. Etorkizunean sortuko den Goienkaria aldizkariaren lehen urratsa, hain zuzen.



MOZAMBIKETIK BERRI LARRIAK

Berri larriak datoz Mozambiketik uholde ikaragarriak, edateko urik ez, gaixotasun larriak, etxebizitzak txikituta... Orain hilabete batzuk, azaroan hain zuzen, Mozambikeko bi lagun izan ziren bisitan Aretxabaletan, Daniel Machava eta Bernardo Tembe. Hemengo lan egiteko era ikusi eta ikastera etorri ziren. Badirudi eurak bizi diren lekuan, Maputo probintzian, ez dela kalte haundirik izan baina lana egiten duten distrituan bai, beraz, euren proiektu eta amets guztiak urak eraman ditu.

Momentu honetan laguntza beharrean aurkitzen dira Mozambiken eta Hiruatxek bi kontu korronte zabaldu ditu horretarako:
Euskadiko Kutxa:
30350002100020033659
Gipuzkoako Kutxa:
21010024100122986177

Aretxagazetako bazkide kanpaina

Aretxagazeta etxean jaso edo zure datuetan aldatarik egin nahi baduzu bete dagokion laukia eta ondorengo lekuetan utz dezakezu: Eroski, kioskoak, okindegiak eta udaletxe zaharra (Durana, 11).

Bazkide egiteko

IZEN-ABIZENAK.....

HELBIDEA:.....

TEL.:.....

KUTXA:.....

ZK. (20 digito):.....

**Urtean
1.500 pta**

Datuetan aldatetako

* Aldaketa eman den datua gorritz idatzi

IZEN-ABIZENAK.....

HELBIDEA:.....

TEL.:.....

KUTXA:.....

ZK. (20 digito):.....

Batzar Informatiboa Goiena proiektuaren inguruan

Aretxabaletako Komunikabideak-Loramendi Elkar-teak Batzar Informatibora-ko deialdia egin nahi die bazkide guztiei. Etorkizunari begira datozen aldaketen berri eman nahi da bertan, eskualde mailako komunikabideak, telebista eta aldizkaria sortzearena, hain zuzen ere. Momentuz, denak bateratuko dituen Goiena Elkarte osatu nahi da eta horretarako Aretxabaletako Komunikabideak-Loramendiko bazkideen oniritzia jasotzea komeni da. Oniritzi hau martxoaren 30ean egingo den Batzar Orokorrean eman beharko da baina gaia mamitsua denez aurretik zalantzak

argitu nahi dira bilera bat eginez. Beraz, bazkide guztiei datorren martxoaren 16an egingo den Batzar Informatiborako deialdia egiten zaie, udal-txe zaharrean arratsaldeko 7etan.

Aretxagazetako bazkide kuota

Aretxagazeta aldizkariak, urtero legez, urteko bazkide kuota pasatuko du martxoan. Aurten ere ez da aldaketarik egongo, 1.500 pezeta izango da. Aipatu behar da, bestalde, Aretxagazeta etxean jaso nahi duenak aldizkarian agertzen den orritxo bete eta bidaltzea besterik ez duela egin behar.



Komunikabideen etorkizuna eztabaidatzeko hainbat bilera egin dira

ZARAIA ZINEMA KONPONTZEKO PROIEKTUA EGITEA ONARTU DA

Aspaldi egin beharrekoa zen, eta azkenean, Zaraia zinema konpontzeko proiektua egingo da. Pasa den astean Beasaingo zinema ikustera joan ziren Sokorro Unanue kultura zinegotzia, Inma Miguel kultur teknikaria eta Jose Mari Segovia hirigintza teknikaria. Asko gustatu zitzaizkien Beasainen ikusitakoa, baina zaila izango dela Aretxabaletan gauza bera egitea komentatu zuen Inmak, Zaraia zinema txiki samarra baita.

Momentuz, Zaraia zinemako proiektua egiteko oinarri eta baldintzak kaleratzea onartu da. Arkitektua izan beharko da proiektua egingo duena eta gustokoena aukeratu ostean, obrak nori eman erabakiko da. Oraindik luze joango dira berriztapen lanak, baina zine txukuna geratzeko moduko aurrekontua du.

BATASUN ZIBILEN ERREJISTROA SORTUKO DA

Goiburu Batzordean batasun zibilen errejistroa sortzeari oniritzia eman ostean, datorren martxoaren 26ko osoko bilkuran, aldaketarik ez bada, behintzat, onarpen prozedimendua martxan jartzea erabakiko da.

Ezkundu barik elkarrekin bizitzeko batasuna osatu nahi duten bikote guztiek, baita sexu berekoak ere, udal errejistro honetan izena emateko aukera izango dute. Helburua elkarrekin bizitzea erabaki duten bikoteei eta familiei ezkontutakoek duten babes sozial, ekonomiko eta juridiko berbera eskaintzea da.

FAMILIA UGARIEK KIROL TASETAN ERDIA ORDAINDUKO DUTE

Aurreko asteko Gobernu Batzordean, familia ugariari, kirol zerbitzuetako tasetan erdia kobratzea onartu zen. Eskaera hau Udaleko Ongizate Zerbitzuak egin zuen eta politikariak baietza eman zioten. Orain, indarrean jartzeko plenoan onartzea besterik ez da falta eta martxoan egingo da hau seguru asko.

**San Migel
erretegia**

Apotza auzoa, 23
Eskoriatza • 943 71 48 71

Martín

Mitarte, 16
Tel.: 943 79 01 72

Bere bezeroen zerbitzura

Bazkari eta afariak

ESKORIATZA

Tfno 714345



ERRETEGIA

MENDIOLA

Astlehenetan itxita
ESKORIATZA

DOIKALSE

**Elektroerosio
lanak**

Basabe Poligonoa C-1-1
Aretxabaleta
Tel.: 943 79 82 44

Iturriondo parkean gero eta zuhaitz gehiago

Iturriondo zelaia edo parkea Mendiolako bidearen gainekaldean dago. Udalarena bada ere, orain bederatz bat urte Amilotx, Aretxabaletako ekologi taldea, egin zen bere kargu. Gaur egun, ordea, ez da jende gehiegi hurreratzen bertara, Jose Mari Sarasua eta Angel Loidi dira gehien ibiltzen direnak.

Zuhaitz mota ugari

Otsailaren 10ean bederatz zuhaitz heldu ziren bertan landatzeko eta Makay enpresakoak, Angel Loidiren laguntzaz, hortantxe ibili

ziren. Hainbat aran mota eta ametzak izan ziren landatutakoak. Honez gero zuhaitz ugari dago Iturriondon, ezpela, pagoa, haritza, astigar arrunta, artea, zumarra, intxaur beltza, gurbitz, agiña, makala, urkia, zakutia, ipurua, tila... Hasi-eran Euskal Herriko zuhaitz motak bakarrik landatu baziren ere, orain denetik dago eta Angelen esanetan "ez da komeni ere hemengo zuhaitzak bakarrik izatea. Landatu ere, naturan egoten diren legez landatzen ditugu, inolako ordenarik gabe eta nahasian".

Helburua, izenak jarri eta gaztetxoei erakustea

Gerora begira, landare gutzietei euren izena jartea da helburua. Izena jarri eta gaztetxoei erakustea, zein mota den bakoitza, zein dagoen galtzeko zorian, zein ari den ugaritzen... jakin dezaten. Angelek gainera, guraso gazteak inplikatzeko polita izango litzatekeela dio "bikote gazteek haurra izatean, zuhaitz bat landatu eta horren kargu egitea polita litzateke. Horrela, gainera jarraipena izango du zelai edo parke honek".



Otsailaren 10ean Makay enpresakoak hainbat zuhaitz landatu zituzten Iturriondon.

... "jan-jan seme, zopatzu honek danak, matxotia izan biezara ta..." Ama batek bere seme "granujatxuari" esan etsan. Hogeitabost urte bai nik ama bati hori entzun notzala. Eibar edo Ermu aldekoa "erregular". Han semetxo danak "granujak" dira edo hala esaten etse behintzat. Gaur ama harek berak, beste esaldi hau esango etsa: "Landatu, sartu arbola bat gutxienez, ekologistia izan biezara ta..."

Asko jan eta matxotia, gero, matxismoa hortik ete dator? Zugaitz bat sartu dalako ekologistia izatia baño errexago bai behintzat.

Dana dala, udaberri usaiña edo arbola askoren loratze edo esnatzea ikusita, berandu xamar baña, udalaxe batzuk, gaztetxuen gogua esnatu naixen "Zuhaitz Egun" ekintzekin bete-betian.

Eta Atxabaltan be badau aukeraik asko... Zerbaitt ein ddabe bai... Eitteko geixau. Seme edo alaba jaio berrixan izenian, sartu zugaitz bat! Errekeruedo ederra. Edo jubilaziño uurtie dalako sartu arbolie! Baitta landare bakoitzan izenak ikesi eta ostro barik, bilutzik dazenien ezagutzen jakin be. Abar, eta abar, egur eta gerri..., azkenian tantaixe...

Angel Loidi

GARBITU S. KOOP

*Garbiketa
orokorrak*

Errekabarren 3- Behea
Tel.: 943 79 01 28

ITURGINTZA

J.J
Jose Jabier Irure

URA, GASA ETA
KALEFAZIOA

Tel.: 943 79 07 34
943 79 31 87

**OSKAR
GARAJEA**

Basabe Poligonoa, A-2-4
Tel.: 943 79 98 74
Fax: 943 71 24 59
ARETXABALETA

M

MEMESA

*Industri
hornidurak*

Tel.: 943 71 24 11
ARETXABALETA



ATXABALTA TELEBISTA URTEBETE ETA GERO

Otsailaren 13an Atxabalta telebistak urtea bete zuen. Data pozgarria izan zitekeen baina azkenengo hila-beteetan izan dituzten arazoak direla eta, inolako ospakizun barik pasatu zen eguna. Egia esan, urtebete honetako bidea ez da bate-re samurra izan telebistako langileentzat, arazo teknikoak, albistē falta, jendearen ezetzak... Hala eta guztiz animoso aurkitzen dira eta tresneriarekin izandako arazoak konpondu ostean, hemendik aurrera gure artean izango dugu martizen eta eguakotxetan.

Dena dela Atxabalta TBri ez zaio bide luzea geratzen, ez behintzat izen horrekin. Eskualdeko telebistaren proiektua egin samartuta dago eta maiatza inguruan hasteko asmoa daukate. Hasiera batean, gaur egungo ATBko programazioa izango da oinarria eta bertan Aretxabaletako berriak sartuko dira.

Parrokiak hainbat ekintza antolatu ditu Garizumarako

Garizuman sartu berriak gara eta, urtero legez, hainbat ekintza antolatu ditu Aretxabaletako Parrokiak berrogei egun hauetarako. Aurten, gainera, Jubileu urtea ospatzen da. Beraz, ohikoa baino ekintza gehiago egongo da.

- **Martxoak 15: Ebanjelioa eta bitzta**
 - San Lukasen Ebanjelioaren aurkezpena: hitzaldia
 - Ebanjelioa ematea parte hartzen dutenei.
 - Tokia eta ordua: Agustindarren Konbentuan arratsaldeko 7,30etan.
- **Martxoak 20tik 24ra: Misioren predikua**
 - 23 osteguna: Ebanjelioa ematea.
 - 24 ostirala: Penitentziaren sakramentuaren ospakizuna.
 - Tokia eta ordua: Parrokian arratsaldeko 7,30etan.
- **Astero: taldeko ebanjelioaren irakurketa**
 - Hasiera: martxoak 9, osteguna
 - Tokia eta ordua: Parrokiako saloian arratsaldeko 7,30etan.
 - Apirilak 13, osteguna: Ospakizuna eta Ebanjelioa ematea
 - Tokia eta ordua: Parrokian arratsaldeko 7,30etan.
- **Asteazkenetan: Otoitzaldia.**
 - Hasiera: martxoak 15.
 - Tokia eta ordua: Agustindarren Konbentuan arratsaldeko 7,30etan.
- **Apirilak 15: Elizbarrutiko Jubileu Erromesaldia Arantzazura.**



Jubileu erromesaldia egingo da Arantzazura apirilaren 15ean.

KANPO ZORRARI BURUZKO KONTSULTA EGINGO DA DOMEKAN

Martxoaren 12an, hauteskundeak aprobetxatuz kanpo zorrari buruzko herri kontsulta egingo da. Hiru galdera izango dira erantzun beharrekoak eta ondoren Herriko plazan edo Durana kalean kokatutako hauteskontzietan sartu beharko dira. Galdeketa hau goizeko 9etatik arratsaldeko 8ak arte erantzun ahal izango da eta 16 urtetik gorako edonork erantzun ahal izango du, nahikoa izango da NANren zenbakia erakustea.

Jendea girotzen eta animatzen joateko, aste guttian zehar kanpo zorraren inguruko erakusketa egongo da udaletxe zaharrean.

BAI EUSKARARI KONTSEILUA KONPROMISO- AK GIZARATERATZEN

Bai Euskarari Kontseilua, Plan Estrategikoa nola gizarateratu berri ematen hasi da herriz herri. Horretarako hitzaldiak antolatu dira hainbat herritan baita Aretxabaletan ere. Hilaren 20an, astelehenean arratsaldeko 7etan izango da udaletxe zaharrean.

Jou Díaz

Harakina
 Loramendi 1, • Tel.: 943 79 71 69
 20550 ARETXABALETA

ANDRA MARI
 Aholkularitza
 - Fiskala
 - Kontablea
 - Juridiko/laborala
 Andra Mari Auzunea, 3
 ☎ 943 79 29 26

Herriko plazan
ARTANO
 Girorik onena
 Herriko plaza, 3 • 943 79 62 75

Jauregi Okindegia
 Otalora, 10
 Tel.: 943 79 57 47
 Aretxabaleta

■ AKORDEOI ORKESTRA

ESPAINIARA Hilaren 24, 25 eta 26an Aretxabale-tako Akordeoi Orkestra, Espainia aldera joango da. Salamanca, Leon, Reinosa eta beste hainbat hiritan kontzertuak eskainiko dituzte akordeoilari gazteek. Kontzertuak ematez gain, bazterrek ezagutzeko ere aprobetxatuko dute bidaiatzea.

■ ZABORRAREN ARAZOAZ JABETZEKO ERAKUSKETA

Pasa den astean zaborraren inguruko erakusketa izan zen herrian. Hainbat muralen bidez zaborrek sortarazten duten arazoaren berri ematen zen eta eskoletako ikasleek bisita gidatuak izan zituzten. Jendeari atentzioa deitu ziona ordea, atzera utzitako "bitxien" erakusketa izan zen, irrati zaharrak, armarriak, erropak, jostailuak...



Putz aldizkariaren bigarren alea kalean

Putz aldizkariaren bigarren alea kalean da. Lehenengo alearekin harridura sortarazi zuten, batez ere portada benetan deigarria zelako. Bigarren hau itxuraz txintxoagoa da, kanpoko argazkiari begiratuz gero,

baina barrukaldean dakarrenak ez du inor epel utzi.

Diego Martiartuk gidatzen duen lan taldean atxalbatar ugari dago. Gogor lan egin dute gainera bigarren ale hau kaleratzeko.



Nagusien dantza taldea birsortu nahi da

Loramendi Dantza Taldean gaur egun ume eta gaztetxoek taldea bakarrik dago. Garai batean nagusiak ere ibili ziren eta berriz sortu nahi da nagusien talde hau. Ez bakarrik euskal dantzak ikasteko baita dantzan egitera kanpora joateko ere. Ea jendea animatu eta talde dotorea sortzen den.

PRODUKTU BIOLOGIKOAK HIZPIDE

Oso jende gutxi bildu zen joan zen eguenean Tomas Larrañaga antzuolarrak produktu biologikoen inguruan eman zuen hitzaldian. Benetan penagarria gauza interesgarriak esan baitzituen, pestizida eta fungizidek osasunarengan duten eragina, esaterako.




HAMABOSTERO EGITEN DIRA BATERAK ANTOLATUTAKO KONTZENTRAZIOAK

Baterak deitu eta Aretxabale-tako euskal presoak Euskal Herrira plataformak antolatutako kontzentrazioak hamabostero-hamabostero egiten dira udalerean. Ostiraletan 7etan izaten dira eta aste honetan tokatzen da. Hasiarian jende ugari biltzen bazen ere behera egin duela ikusita, plataformako kideek jendea kontzentrazioa etor dadin animatzea nahi dute.

ERREKABARREN MEREKATAL ZENTRUA

- JUANTXO URDAITEGIA 943 79 75 42
- MARI KARMEN OINETAKO DENDA 943 79 59 85
- IRUDI ILEAPAINDEGIA 943 79 80 90
- MIREIA ARRAINDEGIA 943 79 31 59
- LEINTZ-ROSI 943 79 78 63
- ERREKABARREN FRUITATEGIA 943 79 96 43



*"Garbi daukat Madrilen egon behar dela,
aurpegia eman behar dela"*

EA, zure hitzari eutsiz

Begoña Lasagabaster




*Han egonda bakarrik defenda
ditzakegu gure eskubideak tinko
eta koherentziaz.*

Begoña Errazti



*Ezin da aukerarik galdu Euskal
Herriaren etorkizuna erabakitzen
den erakunde guzti-guztietan esku
hartzeko.*

Nestor Basterritxea



*Bakeak eta euskal arazoaren
irtenbide politikoak gizartearen
esku egon behar duela aldarrika-
tzen badugu, kontsekuenteak izan
eta Madrilen egon beharra
daukagu.*



Euskal Sozialdemokrazia



50 urte
Atxabalta
jazten...

ASENSIO

Kalitateak mugarik ez



ARGÍ-PLASTIK

Leihoen fabrikazioa, P.V.C, aluminioa eta poliuretanoa
Zigorrola, 1 8. Pabilioia
Tel.: 943 77 11 30
ARRASATE

Domekan kanpo zorra deuseztatzearen aldeko herri kontsulta egingo da. Azken egunotan asko hitze-gin bada ere honen inguruan, oraindik kanpo zorra zer den ez dakien jende ugari dago. Hori argitzeko Ibon Antero, Hiruatxeko kidearengana jo dugu.



Ibon Antero

Kanpo zorra deuseztatzearen alde

■ **Herri kontsulta hau hemen sortu den ekintza da?**

■ Ez, Espainia mailan ematen ari den kontsulta bat da eta herrietan bertako herri mugimenduak ari dira bultzatzen. Aretxabaletan Hiruatx taldetik antolatatu eta bultzatu dugu. Euskal Herri mailan 25 herritan egingo da.

■ **Zer da kanpo zorra?**

■ 70. hamarkadan herrialde aberatsek ekonomikoki ahulak ziren herrialdeei kredituak eman zizkieten. Kreditu hauen onuradunak herri horietako gobernua izan ziren, eurak aberastu, armak erosi eta herria zapaltzeko erabili zituzten. Honez gain, kredituen interesak haunditzen joan dira eta hau guztia ordaintzeko mailegu berriak eskatu behar izan dituzte. Orain,

hasierako zorraren hirukoitza ordaintzera behartuta daude.

■ **84 herrialde dira guztira?**

■ 84 herrialde hauek kanpo zor haundia dutenak dira. Herrialde baten Barne Produktu Gordinaren %30tik gorakoa bada zorra, kanpo zor haundia duela esaten da. Nikaraguaren kasuan %600etik gora dago.

■ **Zein ondorio ditu kanpo zorrak?**

■ Herrialde pobreek euren garapenerako dirurik bideratu ezina. Dirua, zorra ordaintzeko behar dute. Mozambiken kasuan, BPGren %443,6koa da kanpo zorra, hezkuntza eta osasun aurrekontuen bikoitza.

■ **Nolakoa izango da herri kontsulta hori?**

■ Hiru galdera izango dira eta bai edo ez erantzun beharko da. Bi hautesleku egongo dira, Herriko plazan bata eta Durana kalean bestea. Kontsultak legitimitatea izan dezan, hauteskunde garaian bi begirale egongo dira. Hauek, hautesontziak zigilatuta duedela, botuak ez direla errepikatzen, datuak zuzenak direla... frogatuko dute, beraz, ez da izango nolana ere egindako zerbaite.

■ **Edonork bozkatu ahal izango du?**

■ Hamasei urtetik gorako edonork, NAN bakarrik aurkeztu beharko da. Paperik gabeko inmigrantek ere botua eman ahal izango dute.

■ **Kanpo zorra deuseztatzearen aldeko manifestu**

bat ere atera da...

■ Herriko talde eta elkarteetako kideei manifestua azaldu genien, kontsulta honekin zer egin nahi den argi utziz. Era honetara, herritarrek, herriko taldeen bitartez bultzatutako zerbaite izatea nahi genuen eta ez talde bakar baten ideia. Aretxabaletan hamabost bat taldek sinatu du manifestu hau.

■ **Zer egingo da gero herri kontsulta honekin?**

■ Herri kontsulta hau koordinatzen duen zentrua Lleidan dago. Han herri guztietako botuak jasoko dituzte. Botu hauek agintariari presio politikoa egiteko erabili nahi dira. Jende askok parte hartzea espero dugu eta emaitzak era egokian erabiliko dira zalantzarik gabe.

Jubileua bizi gaur

Askoren iritziz, Eliza Katolikoak eliztarrentzako antolatutako festa bat besterik ez da Urte Santua.

Baina Jubileuaren sustraietara joanez gero, jatorria Testamentu Zaharrean aurkitzen dugu. Israel herriak 50 urtetik behin ospatzen zuen helburu nagusi batekin, Biblian irakurri daitekenez: gizasemion arteko harremanak Jainkoaren asmoen arabera berritzea; pertsona bakoitzak bere duintasuna berreskuratzea edo sendotzea.

Honetarako, lau ezaugarri jartzen ziren: lurrari atsedean ematea, esklabu eta gati-buak askatzea, zorrak barkatzea eta erosi edo lapurtutako ondasunak bere egiazko jabeari itzultzea.

Beraz, jubileoa, ez zen ospakizun erlijiosoa soilik. Judutarrek Jainkoagan zuten sinismenak, gizakion alde apustu sendoa egitera bultzatzen zituen.

Israel herriaren praxi hau, Jesusek bere bizitzako helburu bihurtu zuen. Bera da, Lukasen Ebanjelioak dioen bezala, Jainkoaren Grazi Urtea iragartzera datorkiguna, etengabeko grazi urtea aldarrikatzen datorrena, helburu batekin: giza duintasuna, pakea, zuintasuna eta elkarmaitasuna oinarri izango dituen herri berri bat lortzea.

Beraz, guretako, Urte Jubilarra, munduko behartsuen eskubideak aldarrikatze eta zapalduen zuintasuna egiteko garaiegokia izan daiteke, pertsonaren duintasuna oinarritzat harturik.

Lehen aipatutako disposizioak gaurkotuz, konturatuko gara oraindik ere oso baliogarriak eta lagungarriak direla:

a. *Lurrari atsedena eman.* Naturak denbora behar du berritzeko eta ugalkortasuna berreskuratzeke. Datozen belaunaldiak zeharo pobreturiko lurra jasoko dute gugandik. Askotan horrelako berriak ditugu: itsasoak kutsaturik, Ozonoko kapako zuloak, desertizazioa, espezie askoren desagertzea...

b. *Esklabuak askatzea.* Milioika pertsonengan eragin zuzena duten gure garaiaurreratu honetako esklabutza berrien lekuko gara: sexu komertzioa, haurren explotazioa, emakumearen egoera...

c. *Zorrek barkatzea.* Hirugarren Munduko herrialdeetan, Kanpo Zorra dela eta, pobrezia areagotzen ari da, behartsuen eta aberatsen arteko diferentzia gehituz.

d. *Jabeari bere ondasunak itzultzea.* Edo lurra zuzen banatzea. Hirugarren Munduko herrialdeetan, familia gutxi batzuk lur guztien jabetza daukate. Lehen Munduan, berriz, baserria desagertu eta industrialdeak indartuz doaz.

Urte Jubilar honetan, Juan Paulo II. Aita Santuak gizartearen bihotz-berritzea bultzatzera dei egiten digu, pakearen, zuintasunaren eta pobreen alde konprometituz.

Beraz, Jubileoa borondate oneko eta sentiberatasuna duten gizon-emakume guztientzat dei bat da. Zuretzat ere bai. Utopian eta itzaropenean sinisten duzenok pozez onar dezakezue Jubileuaren deia.

Antonio Astigarraga



Arizmendi

LAN-ESKAINNTZA

Interesatuok, bidali zuen curriculum vitae-a helbide honetara:
ARIZMENDI, KOOP. E. -136 P. K. -20550- ARETXABAETA

Idazkaritza eta Administrazio lanetarako pertsona bat behar dugu aldi baterako.

ZERA ESKATZEN DA:

- ✓ Enpresa zientzietan diplomatua edo eta Administraziooko Teknikari-Espezialista.
- ✓ Microsoft tresnen ezagutza izatea (erabiltzaile mailakoa).
- ✓ Kontabilitatearen ezagutza oinarritzakoa.



Aratusteek utzitako arrastoari jarraika

Aratusteak etorri orduko joan dira. Hainbeste burukomin eta buruhauste mozorroa prestatzeko eta etorri orduko joan zen aratuste domeka. Ez, ordea, gozatu barik. Eguraldia lagun izanda sekulako giroa izan zen goizetik gauera. Mozorro orijinalik ere ez zen faltatu. Zirkoak bertako ikuskizun guztiak eskaini zituen pailasoak, magoa, "gizon-perdigon", laban jaurtitzaila... Erromatarrak ere kalee-

tan gora eta behera ibili ziren Zesar Augusto buru zutela. Giralduak, platanok, momiak, kalegarbitzaileak, "drag queen"ak, Deba Blue poliziak, Agata Ruiz de la Parranda... Norbait falta ete zen?

Euskal Presoak Euskal Herrira plataformak antolatutako kalejirak giro aparta jarri zuen arratsaldean. Jaietan ere presoak gogoan izan zituen jendeak.



■ Zesar Augusto soldadu eta guzti etorri zen.



■ Hiru pisutako dorrea egitea lortu zuten "castellers" hauek.



■ Platano ugari saldu zituzten, baita 1. saria lortu ere!



■ Momiak ere ez ziren sari barik geratu.



■ Errealeko jokalariai arbitro eta guzti etorri ziren.



■ Lortu ete zuten deabrutxo hauek norbait infernura eramatea?



■ Agata Ruiz de la Prada edo de la Parranda?




■ Zirkoak jarri zuen giroa ez zen nolanhikoa izan.



■ Abadea ere bonboa jotzen?



■ Toreatzailea zezenen zain.



■ Indioak zaldi eta guzti etorri ziren.



■ Giraldillek ere ez zuten aratuste domeka galtzerik nahi izan.



■ Sekula ezagutu ete da hain kalejira jendetsua Aretxabaletan?



Pala

Bederatzi bikote pala txapelketan. Kiroletxeak antolatutako pala txapelketako bi ihardunaldi jokatu dira dagoeneko. Aurtengo hone-tan bederatzi bikote izan dira guztira izena eman du-tenak, horietatik sei herri-koak dira eta gainontzeko hirurak kanpokoak.

Pala txapelketaz gain, uda-berri aldera esku pilota eta squash txapelketa ere izan-go ditugu eta berrikuntza moduan udazkenean fronte-nisean jokatu da.



korrika

Joseba Larrinaga munduko kross txapelketarako gertu. Martxoaren 18 eta 19an Por-tugalen ospatuko den elba-rrituentzako munduko kross txapelketan izango dugu Joseba Larrinaga. Aipatu krossa distantzia motzekoa izango da, eta ondorioz, nahiko arina. Josebak nahia-go ditu distantzia luzeagoko krossak. Dena dela, postu ona lortzeko itxaropenez abiatuko da Algarve aldera eta horretarako gogor entre-natzen dihardu.



Txirrindularitza

Dorletako Ama eskolako txirrindularien debuta. Pasa berri den asteburuan Dorletako Ama txirrindulari eskolako jubentilek debuta egin zuten Eibarren. 83 kmtako karrera luzea izan zen, eta Beitia gatzagarrak lan polita egin zuen. Azken hau ihes eginda ibili zen eta azken kilometrotan taldeak irentsi zuen arren, aurreko postuetan sartu zen. Dato-rren asteburuan gainon-tzeko taldeen debuta izango da.



Mendia

Iñurrategitarrak hamalau zortzimilakoan atzetik. Jo ta ke gelditu barik ari dira Felix eta Alberto Iñurrategi munduaren alde batetik bes-tera. Patagoniatik itzuli on-doren, bihar bertan abiatuko dira Nepal aldera hamalau zortzimilakoak egiteko bide-an. Lehenengo helburua Annapurna eta Manaslu mendiak egitea da. Ondoren, Gashemburm 1 eta 2 igo nahi dituzte aurrean. Beraz, espedizio hauetan zorterik onena bi anaientzat.

Pasatu berri den domekan herriko zikloturistek denboraldiaren estreinaldia egin zuten. Hemendik aurrera domekero aterako dira txirrinduan hainbat ibilbideri aurre egiteko asmoz. Candido Perez taldeko zuzendaria da eta bere eskutik taldearen nondik norakoak ezagutu ditugu.

■ Noiztik Aretxabaletako zikloturista taldean?

■ Hamabost urte badira taldea sortu zela eta ni sorreratik izan naiz bazkide. Zuzendari lanetan, bestalde, hiru urte egin ditut.

■ Iazko taldearen denboraldiaz zein balorazio egingo zeniguke?

■ Egia esan behar badut, afizioak nabarmen behe-rantz egin du. Gazteak ez dira animatzen eta besteok ere nekatu egiten gara urteekin. Gaur egun 50 bazkide gara, baina 104 bazkide izan ginen garai batean. Dena dela, gaudenok ilusioz helduko diogu gure domeketako zitari.

■ Zikloturismoaren indar

gutxitze horretan, zein arrazoi nabarmenduko zenituzke?

■ Alde batetik, sakrifizio handia eskatzen duen kirola da. Bestetik, bidean ibiltzea gero eta arrisku-tsuagoa da eta jendeak bel-durra hartu du. Azken urte-otan, gainera, bideak ez dira hobetu, orain hoge-i urte bezala daude. Horrez gain, federazioak ere badu bere errua. Jendea bere aldetik federatzen da, talde baten bitartez egin behar-rean. Eta horrek ez du talde-egoera hobetzen laguntzen, indarrak sakabatu baido.

■ Aurtengo urterako asmo berezirik bai?

■ Domeketako irteerei erantzuteaz gain klasika bat antolatzea nahi dugu aurrean. Aretxabaletan bertan klasika bat egiteko asmoa daukagu. Horreta-

rako Udalaren laguntza ekonomikoa beharrezkoa dugu. Ekintza hori antolatzeko dirulaguntza jasoz gero, iraila aldera egingo litzateke. Hemen Aretxabaletan ez da sekula egin, eta ideia polita dela deritzot.

■ Zu zeu, zikloturista amorratua zaitugu.

■ Bizikletan ibiltzea droga bat da niretzat, droga osasungarria. Kirol sakrifika-tua da baina merezi du. Ia egunero egiten ditut 60 bat km. Domeketan, berriz, zikloturistekin taldean irte-tan naiz.

■ Irrikitan denboraldia hasteko?

■ Bai, gogo haundiekin. Nolanahi ere, aurrean beste urte batzuetan baino lasaiago ibiliko naiz, belauna ez daukat ondo eta. Domeketako irteerez gain, urte-roko ohiturari jarraituz "Quebrantahuesos" egite-

ko asmoa daukat.

■ Beraz, proba gogor hori egitea ohitura bilakatu da.

■ Bai, bai. Aurrean hamargarren edizioa egingo da eta nik hasiera-hasieratik guztietan hartu izan dut parte. Aurrean ere ez dut hutsik egin nahi, nahiz eta aurrekoetan baino lasaiago ibiliko naizen.

Candido Perez

Zikloturista taldeko zuzendaria





Zikloturistek denboraldiari hasiera eman zioten Dorletako Ama Birginari lore eskaintza egin ondoren

Zikloturistak bizikletari helduta

Pasa berri den domekan denboraldiari ongi-etorria eman zioten herriko zikloturistek, ohikoa den moduan Dorletako Amari lore eskaintza egin. Ekitaldira txirrindulari dexente batu zen, eta bailaran bertan 47 km.ko ibilaldia egin ondoren, esan bezala, lore eskaintza egin, eta ondoren, lunch-a izan zuten.

Domeketako zita

Denboraldia hasi ondoren, domekero-domekero bizikleta hartu eta kilometro mordoxka bat egiteko gertu izango ditugu zikloturistak.

Denboraldia urrira arte luzatuko da eta tartean 2.000 km.tik gora aurreikusituen ditu egutegiak.

Zikloturista taldea orain 15 urte sortu zen eta gaur egun 50 bazkide ditu. Horietatik hiru aurten bertan sartu dira. Candido Perez Aretxabaletako zikloturista taldeko arduradunak adierazitakoaren arabera, zikloturisten kopuruak nabarmen behera egin du azken urteotan. Izan ere, taldea sortu zenetik, 180 bazkide izatera ere iritsi dira. Gaur egun, lehen aipatu bezala, 50 bazkidek osatzen

du taldea eta horietatik domekero-domekero aritzen direnen batez-bestekoa 12 txirrindulari ingurukoa da. Dena dela, azken urteetako bazkideen beherakada beste herrietan ere gertatu dela azaldu du zuzendariak.

Aurtengo helburua domekero irteerei erantzutea da, egutegia betetzea, beraz. Horrez gain, Candidok badarabil beste ideia bat buruan, klasika bat antolatzearena hain zuzen. Dena dela, hori aurrera eramateko Udalaren laguntza ekonomikoa beharrezkoa izango duela gehitu du.

■ ARLUTZEKO LIGASKAN ZORTZI TALDE AURRERA

Arlutz futbito txapelketa-koro aurreneko liga bukatu berri da eta martxoaren 18tik aurrera ligaska berria hasiko da. Bertan orain artean ibili diren hamar taldeetatik lehen zortziak arituko dira, azken biak kanpoan gelditu baitira. Klasifikatu diren taldeak, Peña Hugo (41 puntu), DDK (37 p.), Taulerone (34 p.), Kemen (33 p.), Garaje Tanis Mulas (30 p.), MCM (27 p.), Hugo (25 p.) eta TPM (20 p.) izan dira. Kanporatuak, berriz, Escuadron (7 p.) eta Ondanadas (3 p.) taldeak ditugu. Hemendik aurrera, beraz, lehen lau taldeek euren artean jokatuko dute buelta bakarrera eta azkenengo laurak euren artean. Horren ondoren final aurrekoak eta finala jokatuko dira. Txapelketa apirilean bukatuko da, Aste Santuak aurretik.



BENGOA URDAITEGIA

Bertako okelak eta mortzilak

Durana, 9
Tel.: 943 79 19 79

Mobiliario ARENAZA

• ALTZARIAK
• DISEINUA
• APAINKETA

Bizkaia, I - Tel.: 943 79 08 07
ARETXABAETA

BEGI OBO

optika

Loramendi, 10
☎ 943 79 98 21

Bereziki: Harategia
Urdaitegia
Fruitategia


IMANOL
JANARI DENDA

Gorbea kalea ☎ 943 79 05 83

Dendari lana gertutik ezagutzen du Miguelek. Lehen fruta-denda batean lan egiten zuen eta orain hiru urtetatik hona Angelines janari-dendan. Dendako lanaz gain, Miguelek korrika egiteari eta familiari eskaintzen dio gelditzen zaion denbora apurra.

Miguel Perez

"Dendako lanaz gain, korrika egiten dut denbora librean"



- **Urte mordoxka dendari.**
- Bai, dendari lanetan 15 bat urte guztira. Lehen fruta-dendan, eta orain, Angelines komertzioan.
- **Gustura?**
- Bai, lana beti lana den arren.
- **Zer eman dizu dendari lanak urte luze hauetan?**
- Beno... batez ere esperientzia eta gauza berriak ikaste-ko aukera.
- **Zer ikasteko aukera, adibidez?**
- Ba... fruten mundua oso zabala dela ezagutu dut, frute-tan aukera haundia egoteaz gain, bakoitzetik mota asko daudela: zortzi mota mandarina daude, naranja sei eta sagarrak, adibidez, hamarretik gora.
- **Eta fruta exotikoak?**
- Piña, aguakatea, mangoa...
- **Eta zu zeu fruta jateaz nekatuta?**
- Ez alderantziz. Denda izan aurretik askoz fruta gutxia-go jaten nuen. Orain, berriz, asko jaten du.
- **Korrikan sarri ikusten zaitugu, nondik ateratzen duzu denbora entrenatzeko?**
- Eguerdietan, denda itxi eta gero Urkulura igo eta buelta bat ematen diot urtegiari.
- **Astean zenbat aldiz?**
- Bi-hiru aldiz.
- **Hurrengo, zein lasterketatan ikusiko zaitugu?**
- Ojala-zelaikoan, gero Eskoriatza-Arrasate krossean, eta datorren udazkenean, Behobia-Donostia lasterketan.
- **Korrika egiteaz gain, zein beste afizio duzu?**
- Irakurtzea.
- **Euskal Herriko egoera politikoak irtenbiderik badu?**
- Eduki bai, baina gogoan behar da. Aukera izan dugu zeozer egiteko eta ez da ezer egin.
- **Kanpaina politikoa jarraitzen duzu?**
- Denbora guztian hori ematen ari direnez, zeozer jarraitzen dut baina ez gehiegi.
- **Eta pasatu berri ditugun aratusteetan mozorrotu zara?**
- Bai, domekan ez baina martizenean bai. Azkenengo momentuan etxean neukan mozorro bat jantzi eta kitto.
- **Telefono mugikorrik baduzu?**
- Ez, ez zait batere gustatzen. Etxean, gainera, ez dut telefonorik.
- **Irratia, egunkaria ala telebista?**
- Gehienbat irratia.



Haizea


Zure gustoko giroa

Mitarte z/g
ARETXABAETA
Tfnoa: 943 79 85 57

Jose Mari bodegoia

Eguneko menua

Nafarroa, 6
☎ 943 79 20 45
Aretxabaleta



**ZEIN KOLORETAKOA
IKUSTEN DUZU ETORKIZUNA?**



Zeuk erabaki.



www.eaj-pnv.com



Oraindik aurrezkiak epe bati lotuta badituzu ongizate Aurrezkiak eskaintzen dizugu

Zer irabaziko duzu Ongizate Aurrezkiarekin?

1. Baldintzarik gabe erabili ahal izatea

Libreta normalean legez, behar duzunean erabili ahal izango duzu zure dirua, inolako penalizaziorik gabe. Horrela, "badaezpada" gordetzen dituzun aurrezkiak ez ezik, geroko proiektuetarako nahi dituzunak ere sar ditzaitezue.

2. Errentagarritasun handiagoa


Ongizate Aurrezkiarekin eperako libretaren errentagarritasuna lortuko duzu. Hori bai, eperik gabe. Gainera, interesak egunero kalkulatu eta hilean behin sartzen direnez, saldoa hileroko handituko zaizu. **Eta komisiorik gabe.**

3. Aurrezteko era erraz eta erosoagoa

Izan ere, zuk zeuk erabakitzen duzu noiz eta zenbat sartu. Kopuru txikiak nahiz handiak, astero nahiz hileroko... Eperako aurrezkiak ez bezala, ez duzu zehatz bat bildu arte itxaron behar.



Eperako libretaren
errentagarritasuna
eta libreta norma-
ren erabilgarritasuna



Eta sari gisa, eraman ezazu dohainik
Mahai-tresneria bat 350.000 pta.ko
diru-sarrerara eginda.





Akabo mozorroak

Akabo, akabo gure arustus-teak. Egia esan, ezin gara kexatu, eguraldi ederra, giro bikaina eta mozorrotan kalitate handia. Gure herrian antzerkigileak, behintzat, ez dira falta, ez horixe! Honezkerok, antzerki talderen batek fitxatuta izango ditu hemen izan genituen artista gaztetxoak eta ez hain gazteak ere. "El circo Italiano" Italiara bidean izango da, Gizon perdigon auskalo non eta giza dorreko partaideak katalunian, jakina. Horrez gain, giraldillak, Los Simpson, txapetel, Drag queen-ak, printzesa igelak, zezenak, platanoak, eta beste kukumarro ugarik alaitu zituzten herriko kaleak. Norbaitek aurreko nire artikulu batean irakurritakoari kasu egin zion, eta zazta! baita ideia hartu ere. Sari banaketan, nagusietan, Italiako zirkoa gailendu zen, ondoren, Zesar, giraldilak eta kale garbitzailak jaso zuten saria. Gaztetxoetan, berriz, epaimahaiok ondorengo ordenan eman zituzten sariak: platanoak, rastak, momiak, eta azkenik, indioak. Epaimahaiok nahiko buruhauste izan zuten sariak ematerako orduan, izan ere, kantitatea eta kalitatea nagusi izan baitziren egun honetan.

Gaia aldatuz, gaztetxoak zaintzea tokatu zaio Olaia Urzelairi. Izan ere, ludotekako arduradun berria dugu. Gustura arituko da bertan, ni ere pozik egongo nintzateke horrenbeste joku eta neska-mutikoren artean. Aspertu behintzat ez da aspertuko horrelako txoko batean.

Eta zer entzun dut akordeo orkestrakoen inguruan? Beste ibilalditxo bat egingo dute martxoaren 24tik 26ra bitartean. Leon eta Salamanka aldera joango dira akordeoia hartuta. Poliki-poliki akordeoiaren kontura munduko inguru guztiak ezagutu behar dituzte. Nik ere amari kasu egin izan banio... zenbat alditan esan ete zidan akordeoia ikasteko. Ai ama!

Eta bukatzeko aste honetan Bertatik Bertarakoak izan ditugu gure artean. Hiru txek antolatutako Kanpo zorrari buruzko erakusketa grabatzen aritu dira. Eta zer eta atxabaltarra kazetari lanetan, Unai Loidi. Herriko notiziak Aretxagazetan bakarrik ez dira zabaltzen eta medio handiagoetara ere heltzen dira. Beraz, aste honetan ikus ezazue Andoni Aizpururen programa.

M. J. Arzak



Un puente sobre el Drina

Ivo Andric
Debate, 1999

Liburu honetan XVI. Mendean Bosniako Visegrad hiriko zubia eraiki zenetik XX. Mende hasera arteko kronika kontatzen da. Zubia kontakizuneko gidari bezala hartuz hiriko historia eta hiriko biztanleen istorio desberdinak ere kontatzen dizkigu Andric-ek. Hauen bitartez mundu kristau eta musulmanaren artean ematen diren gatazkak generazioz generazio nola mantentzen diren ikusiko da. Gaur egun Jugoslavia ohian ematen den zatiketa ulertzeko aukera paregabea ematen digu, beraz, liburu honek.

Ivo Andric idazle Bosniarrak literaturako sari Nazionala irabazi zuen liburu honekin eta Nobel saria ere jaso zuen 1961ean; 1975ean hil zen, oraindik Visegradeko zubia zutirik zegoela.

Joseba Lopez de Armentia

EUSKARA ZUZENTZEN

Gaurko honetan aukeratutako akatsa garaiarekin bete-betean dator. Aratusteetan egin izan den ohiko akatsa da. Dagoeneko jaiok pasatu zaizkigun arren, datozen urteetara begira komiki hau lagungarri izango delakoan gaude. Beraz, adi begiratu komikiari eta jakin ondo nola esan behar den.



Denetik

Solarium-a salgai.
Prezioa: 45.000 pta.
Goizez deitu 943 79 68
63 telefono zenbakira.

Eratzuna galdu nuen arastusteetan. Balio sentimental handia du niretzat. Norbaitek aurkitu badu mesedez deitu 943 79 34 70 telefonora.

Bi salmahai eta apalategi metalikoak salgai. Deitu: 666957983

Txahalak salgai kongeladoran sartzeko.
Labeldunak eta natural hasita. Bildotsak ere bai.
Tel.: 689541861.

Trialeko motorra salgai.
Gas-gas. 250 cc. 91. urtekoa. Motorreko botak oparitzen ditut, 41 zenbakia. Prezioa momentuan adostuko da.
Tel.: 943 79 78 36.

Bi motor kasko salgai.
Integrala, 3.500 pta.
"Mosquito" erakoa 2.000 pta. Biak 5.000 pta.
Bizikletako kaskoa: 4.000 pta. Tel.: 649324576.

Piragua salgai. Whip, it. Arraunekin, "cubrebañera" eta bi globorekin.
130.000 pta.
Tel.: 943 79 78 36.

Iragarkiak

Sail honetan jartzen diren iragarkiak DOAN dira. Partikularren iragarkiak argitaratzen ditugu bakarrik. Aretxagazetak ez du argitaratzen diren iragarkien ondorioz sor daitezkeen operazioen erantzukizunik.

Zure iragarkia honako txoko honetan jarri nahi baduzu, deitu 943 79 86 21 telefonora edo 943 77 18 54 erantzungailura.

Zorro urdina duen argazki kamara galdu nuen aratuste domekan. Ricoh markakoa. Deitu 943 79 86 21 telefonora.

Opel Kadet GSI 2000 16 v salgai. Egoera onean. Tel.: 943 79 75 11/79 98 08 (Mikel).

Kotxea salgai Renault 21 TXE. Egoera onean.
Tel.: 943 79 68 63.

Zaldia baldin baduzu eta nirea zaintzeko prest bazaude, tratu batera hel gaitzke. Tel.: 943 79 21 86. (Jonegatik galdetu).

Etxebizitza

Pisu bat alokatu nahi da Aretxabaletan.
Tel.: 945 17 28 13 edo 943 79 49 18.

Pisua alokatuko genuke Aretxabaletan. Deitu Ibarra tabernara.
Tel.: 943 79 69 86. (Vicen).

Aretxabaleta edo Arrasaten langile batek gela bat behar du bizitzeko.
Tel.: 607 798 723.

57 m²ko garajea salgai edo alokagai Errekabarraren kalean.
Tel.: 943 79 74 73.
Gela bat alokagai Aretxabaletan. Tel.: 943 79 05 28.

Etxe bat erosi nahi da Aretxabaletan.
Tel. 649 16 86 69.

Garajea alokagai Santa Kurtz kalean 24. zenbakian. Tel.: 943 79 16 24.

Herriko plazan gela bat saldu edo alokatzen da.
Tel.: 943 79 77 30. Egoera onean.

Pertsona bat behar da pisu bat osatzeko. Tel.: 943 77 03 36 (Ainhoa).

Hiru-lau langilek pisu bat behar dugu alokairuan hartzeko. Jatorrak gara eta etxea ondo zaindiko dugu. Tel.: 943 77 03 36 (Ainhoa)

Logela bat alokatzen da, pisu konpartitu batean Arrasaten.
Tel.: 943 79 23 96.

Etxe bat alokatuko genuke Aretxabaletan edo Arrasaten.
Tel.: 646699843.

Pisu bat edo gelak alokagai. Santa kurtz kalea, 5.
Tel.: 943 77 11 45.

Maritxu

Mertzeria

Araba Ibilbidea, 24
Tel.: 943 79 23 53

JOSU HARATEGIA

Urdaitegia-Gozotegia
kroasantegia
Janari prestatuak

Mitarte, 1 ☎ 943 77 03 08

"ARINSA"

Aretxabaletako industrialdea S.A.

Basabe poligonoa "EO-10"
Tel.: 943 79 62 80/Fax: 943 79 76 19
ARETXABALETA

Lana

2. LOGSEko zientzietako ikasle batek kimika eta historiako klase partikularak hartuko lituzke.

Tel.: 666 725 332.

BARREN astekariak zuzendaria behar du.

Tel.: 943 74 16 26.

Ingeleseko klase partikularak ematen dira. Maila guztiak.

Tel.: 943 77 08 69.

Dukiena jatetxeak garbitasunerako pertsona bat behar du eta baita zerbitzari lanerako beste langile bat. Tel.: 945 44 50 86.

Astebukaeretan mahaiak zerbitzeko pertsona bat behar da.

Tel.: 943 79 68 57.

Enpresa zientzietan lizentziatua lan egiteko prest.

Tel.: 943 79 89 92.

Arrasaten kokatutako Informatika enpresak, Informatikan diplomatu edota lizentziatua behar du. "C" ezagupenak. Harremanetarako telefonoa 943 71 20 99.

Lan deialdi publikoak

Bideko garbiketa eta lorazaintza. Ormaiztegiako Udala. Zerbitzu hauek kontratatzeko lehiaketa. Epea: martxoak 20.

Eibarko Udalak kioskoak kudeatzeko pertsona behar du.

Epea: Martxoak 11.

Auzitegiako medikuak.

Eusko Jaurlaritza.

Epea: Maiatzak 27.


Oinarriak: EAO 00/01/14.

Suhiltzaileak: 19 lanpostu. Gipuzkoako Foru Aldundia.

Titulazioa: OHO edo balio-kidea, 1. HE. Aurkezteko

epea: martxoak 16.

Oinarriak GAO 00/2/3.



Langai

Euskal Lan Zerbitzua

BILTEGIKO ARDURADUNA. Arabako lautada.

Erref.: 29412/3

PERTSONAL ADMINISTRAZIOKO IRAKASLEA.

Arabako lautada.

Erref.: 29133/2

FISIKAKO IRAKASLEA. Gasteiz.

Erref.: 29141/3

PEOIA. Oñati.

Erref.: 28837/5

INTERNETEKO IRAKASLEA. Arrasate.

Erref.: 28953/2

HIRU SOLDATZAILE. Durango.

Erref.: 29091/3

INFORMATIKA TRESNERIAREN TEKNIKARIA. Arrasate.

Erref.: 28841/3

INTERNETEKO IRAKASLEA. Arabako lautada.

Erref.: 29149/1

Langaiko lanpostu hauetako bat interesatuz gero, ondorengo telefonoetara dei daiteke:

Bastida akademia: Aintzane Gallastegi 943 79 35 33

Deba Garaiko Mankomunitatea: Alicia Martinez 943 79 30 90

Arrasateko Udala: Marga Garmendia 943 79 09 00

IBARRA

ESTANKOA



Tabakoa eta ikasmateriala

Bizkaia, 3 Tel.: 943 79 23 77

G U R E A

taberna
jatetxea

Durana kalea
Tel.: 943 79 20 64



AZKARATE AROSZEGIA

Tailerra: Mahasterreka, 18
BERGARA
943 76 47 19

ARETXABALETA
943 77 01 24

T X I L A R R A

ELIKADURA BEREZIA



Durana, 35
Tel.: 943 79 10 15

Loramendi, 9
Tel.: 943 79 44 28
ARETXABALETA

EZKUTU
TABERNA

Mitarte kalea, 17 • ARETXABALETA • Tfnoa: 79 00 00
Mitarte 9 • Aretxabaleta • Tel.: 943 79 92 01

MARTXOA

9 EGUENA

■ **BIOERAIKUNTZARI BURUZKO HITZALDIA**
Gazte asanbladak antolatuta bioeraikuntzari buruzko hitzaldia egongo da gaztetxean. Emalea Xabi Tremon izango da. Arratsaldeko 7:30etatik aurrera.



6-12

■ **ERAKUSKETA**

“Manos Unidas”en eskutik erakusketa izango da udaletxe zaharrear. Bertan hirugarren munduarekin erlazionatutako hainbat gai aurkituko ditugu.

12 DOMEKA

■ **KANPO ZORRARI BURUZKO KONTSULTA**
Kanpo zorra deuseztatzearen inguruko herri kontsulta. Bi kontsulta jarriko dira herrian, plazan eta Durana kalean. Goizeko 9etatik arratsaldeko 8etara.

■ **ZIKLOTURISTEN**

IRTEERA Aretxabaleta-Eskoriatza-Bergara-Soraluze-Bergara-Angiozar-Bergara-Aretxabaleta ibilbidea egongo dute goizeko 10etan irtenda. Guztira 47 km.

15 ASTEAZKENA

■ **KULTURA BATZORDEA.**
Arratsaldeko 8etan udaletxekeo ganbaran.

16 EGUENA

■ **BATZAR INFORMATIBOA.** Goiena proiektuaren inguruan batzar informatiboa izango da Aretxabaletako komunikabideak-Loramendi elkartearen eskutik. Arratsaldeko 7etan udaletxe zaharrear.

18 ZAPATUA

■ **SAGARDOPEGIRA IRTEERA** Sagardotegian bazkaria egingo da gazte asanbladak antolatuta. Apuntatu nahi izanez gero, Urbaltzen, Goiaranen eta gaztetxean bertan egin daiteke.

20 ASTELEHENA

■ **KONTSEILUA KONTROMISOAK GIZARTERATZEN HERRIZ-HERRI**
Kontseiluak herriz herriko lanari ekin dio eta horren inguruko hitzaldiak antolatu ditu. Arratsaldeko 7etan udaletxe zaharrear. Joxe J. Iñigok zuzenduko du hitzaldia.

Zorion agurrak



Izaro Larrea
Martxoak 2
Zorionak lagunenetik.



Done Larrea
Martxoak 2
Zorionak.
Koadrilakoak.



Ibone Andres
Martxoak 3
Belarritik sei tirakada denon partetik.
Zorionak neskatxo.



Ainhoa Iregi
Martxoak 6
Zorionak!
Gurasoak eta anaia.



Laura Alonso
Martxoak 6
Bere amaren partetik zorionak.



Itsaso Bidegain
Martxoak 6
Zorionak.
Koadrilakoak.



Mari Asun Guridi
Martxoak 6
Urteak beste tirakada familiako guztien-guztien partetik. Zorionak!



Ibon Urkia
Martxoak 7
Zorionak koadrilaren partetik.
Tragoaren zain gaude.

BALOTAKUK (Hikaz berbetan)



Mikel Arroiabe



Eneritz Pagaldai
Martxoak 7
Zorionak eta urte askotarako. Lagunak.



Txomin Perez
Martxoak 9
Behingoz moztik ile hori. Zorionak! Koadrila.



Miren Argi Kortabarria
Martxoak 9
Ahaztuko ginelakoan? Ez horixe! Zorionak! Koadrilakoak.



Naiara Arrese
Martxoak 10
Zuri ere berdin, belarririk tirakada haundi bat eta zorionak. Koadrilakoak.



Alberto Zillauren
Martxoak 11
Zorionak bere nesken partetik.



Unai Uralde
Martxoak 12
Gora gu eta gutarrak! Zorionak!



Ganitz Zubimendi
Martxoak 12
Zorionak. Amato.



Naiara Akixu
Martxoak 14
Zorionak eta urte askotarako. Lagunak.



Arantza Martinez
Martxoak 15
Zorionak eta urte askotarako. Etxekoak.



Begoña Errasti
Martxoak 15
Zorionak eta urte askotarako. Zure loben partetik.



Eider Filarmendi
Martxoak 16,
Zorionak! Bere lagunen partetik.



Mª Jose Santamaria
Martxoak 16,
Etxekoan partez zorionak.



Joseba Gonzalez
Martxoak 16
Zorionak. Tragoa noiz eta non? Lagunak.



Iratxe Bengoa
Martxoak 17
Zorionak lankideen partetik.

Txistuak • Txaloak

Ez dut beti gauza bera esaten ibili nahi, baina Udalak atera zuen azkenengo bandoak txakurren jabeek garbitasuna eskatzen zien. Era berean, lorategietan kakak jasotzeko adierazten zuten seinaleak jarri behar zirela ere gehitzen zuen, horrela kakak jaso eta zakarrontzietara botatzeko (kakak jasotzeko poltsak udaletxean jaso daitezke). Horren guztiaren ondoren, bi astetan zehar ez dut txakurren jaberik kakak jasotzen ikusi. Zer gehiago egin dezake Udalak egoera honen aurrean? Udaltzainak hasiko al dira gai horren jarraipena egin eta zigorrak jartzen? Horrela bada, ideia honek txalo bat merezi du. Gure herria garbiago mantentzen lagunduko baitu.



Atxabalta telebista

20:00

20:30 / 21:00

martizena

ALBISTEAK/Agenda
Argazki-zaharrak
Kiroiak

Albiste errepikapena

egukotxa

ALBISTEAK/Agenda
Eguraldia

Albiste errepikapena

Jaiotakoak

Youness Louis Perez

Otsailaren 22an.

Iñigo Arkauz Uribesalgo

Otsailaren 27an.

Hildakoak

Javier Diaz de Gereñu

64 urte.

Otsailaren 24an.

Jose Garcia-Etxabe Beitialarriogitia

84 urte.

Martxoaren 1an.

Maria Bergaretxe Aranzabal

87 urte.

Martxoaren 1an.

Aretxabaleta

• Almen	943 71 49 07
• Aretxagazeta	943 79 86 21
• Telebista	943 79 86 21
• Basotxo	943 77 09 81
• Euskaltegia	943 79 21 68
• Gizarte-Laguntzailea	943 79 10 00
• Hezibide Elkarte	934 79 31 32
• Industrialdea	943 79 62 80
• Institutua	943 79 79 00
• Kiroletxea	943 79 64 61
• Kultur-Etxea	943 79 01 05
• Kurtzebarri Eskola	943 79 00 49
• Kurtzebarri B.H.I.	943 79 57 40
• Liburutegia	943 79 10 00
• Loramendi E.E.	943 77 09 70
• Ludoteka	943 79 05 81
• Mankomunitatea	943 79 30 90
• Murrukixo M.E.	943 79 93 74
• Musika Eskola	943 79 36 50
• Ortzadar	943 79 01 84
• Osasun zentroa	943 79 74 58
• Otorara	943 71 24 06
• Parrokia (Bulegoa)	943 79 18 42
• Pausoka Haur-Esk.	943 77 03 77
• Postetxea	943 79 28 31
• Santa Rita Ikast.	943 79 17 00
• Saretxo	943 71 26 56
• Taxi Geltokia	943 79 22 33
• Udal Bulegoak	943 79 10 00
• Udaltzaingoa	943 79 10 52
• Urats Gain	943 79 99 11

Udaltzaingoa

• Arrasate	943 79 14 39
• Bergara	943 77 91 06
• Eskoriatza	943 71 44 07
• Oñati	943 78 04 11

Larrialdia

• SOS Deiak	112
• Eskualde-Ospitalea	943 03 53 00
• Ertzaintza	943 79 71 99
• Gurutze-Gorria	943 76 55 76
• Larrialdia	943 46 11 11
• Suhiltzaileak (Oñati)	943 78 28 00

Garraioak

• Pesa	902 10 12 10
• Renfe (Gasteiz)	945 23 02 02
• Renfe (Zumarraga)	943 72 15 15



Usadioak usadio

M

akina bat urtetan atzera egin beharra dago, erretratu zahar hau atera zen egunera iristeko. Santa Ageda mutilen jatorria aspaldikoa den erakusgarri dugu, beraz, begiurrean dugun argazkia.

Orain antzera, danbolineruen eta bi mutiko gazteren konpainiaz aritzen ziren garai hartako Santa Ageda mutilak ere.

Janzkerari dagokionean,

lehenako usadio berak jarraitzen du oraindik ere, praka eta alkondara txuri, gerriko gorria, painueloa eta txapela. Horixe zen eta horixe da mende luze honetan zehar Santa Ageda mutilek eraman duten jantzia. Eta halaxe jarrai dezala datozen urteetan ere.

Argazkian goian ezkerretik eskumara: Lucas Iturbe (txistularia), Pedro Zubillaga, Jose Mari Elgoro, Luis Leanizba-

rrutia, santos Muzurrizaga, Lorenzo Bernal, Valerio Garay, Perico Galdos, Felis Aguiriano, Agustin Etxebarria, Juanito Peña, Jose Olabe, Jesus Etxebarria, Jose Mari Ortega, Patxi Urzelai eta Jesus Alberdi (txistularia).

*Argazkia: Ramon Elgoro.
Informazioa: Ramon Elgoro.*



LASAGABASTER

Zerkaosteta, 1 eta 2 • ARRASATE Tel.: 943 79 27 27 / 943 79 13 55

burujabetza bidean

hamaiika arrazoi abstentziorako

1 *duintasuna*

5 *heldutasuna*

9 *gure ekonomia*

2 *demokrazia*

6 *ardura politikoa*

10 *gure kultura*

3 *bakea*

7 *koherentzia*

11 *herri honen
etorkizun askea*

4 *askatasuna*

8 *ziurtasuna*

*Espainolak ez garelako
Abstentzioa*



“auto fidagarri, seguru, dinamiko,
berritzaile, zabal, jostagarri eta norta-
suneko bat nahi duzu.
eta aurkitu duzula uste duzunean,
focus agertzen da.

Zeren eta zu zer bait
gehiagoren bila baitzabiltza.

“Erabiltzaile eta
kontsumitzaileen
Erakundeak (OCU),
“crash test” delakoaren bitartez
egindako ikerketaren arabera,
Ford Focus-ek puntuaziorik altuena
lortu du segurtasunean,
beste 5 modelorekin batera”

AUTOPISTA aldizkariko
2.064. zenbakian argitaratua

Ford Focus ****
Mercedes Clase A ****
Opel Astra ****
Renault Mégane ****
Audi A3 ****
VW Golf ****
Citroën Xsara ***
Peugeot 306 ***
Toyota Corolla ***
Daewoo Lanos ***
Honda Civic ***
Fiat Brava **
Ford Scort **
Hyundai Accent **
Mitsubishi Lancer **
Nissan almera **
Suzuki baleno **

fordfocus TDDi berria



MUGARRI



DEBA GARAIKO
BANATZAILE OFIZIALA

Araba etorbidea, z/g • ARRASATE
Tel.: 943 79 07 44 / 943 79 07 54